

# **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Domo House, zure etxeko domotika mugikorreko aplikazio batetik era eroso eta erraz batean kontrolatzea ahalbidetzen dizu.

Hona hemen gure aplikazioaren balio proposamena:

Domo House aplikazio berritzaile bat da, mota honetako aplikazioa ez da eskainitako aplikazio ohikoenetarikoa.

Zera eskaintzen du:

Zure etxeko domotika, aplikazio honen bitartez kontrola dezakezu.

Aplikazio simple bat da, deskargatu eta irekitzerakoan datu pertsonal batzuk eskatuko dizkizu, datu bakoitza non sartu argitu egiten dizu, behin datuak sartuta zure kontu prest izango duzu.

Aplikazioa etxeko domotikara konektatzeko, Domo Houseko teknikari espezializatu bat joango da zure etxera. Ordu-tegi espezializatu batean, zure beharretara moldeatzen dugu ordu-tegia. 20-30 minutuko prozesu bat da eta ez du batera modifikatzen etxeko fatxada, beraz ez da baimen berezirik behar. Noski teknikariaren zerbitzua doanik da, hau da aplikazioa erosterako orduan ordaindutako prezioaren barruan sartzen da.

Behin instalazio guztia prest, aplikazioan On botoia pultsatu eta zure etxeko domotikari buruzko informazioa izango duzu egunaren 24 orduetan urtearen 365 egunetan.

## **Aplikazioa funtzionatzeko baldintzak:**

- Bluetooth-a konektatuta egon behar da.
- Mugikorra piztuta egon behar da.

Aplikazioa amatatu nahi izanez gero, Off botoia pultsatsearekin nahikoa da.

Aplikazioak On moduan egotea ez du mugikorraren bateria murrizten.

Beraz, aplikazio bat izan da , bluethoot duten mugikorra duten pertsona guztiontzat balio du. Gainera, haren prezioa ez da euro batetik gorakoa, beraz ekonomikoki denon eskura dagoen aplikazio bat da.

Domotikan arazoren bat sortuta, segituan notifikazio bat helduko zaizu mugikorrera. Arazoaren neurriaren arabera, larrialdi zerbitzuei automatikoki abisatzen die aplikazioak, zure etxeko norabidea espezifikatuz.

Arazoetaz babesteaz aparte, beste zerbitzu bat eskaintzen du. Zure etxeko tresna elektrikoak programatu ditzakezu. Adibidez labea programatu: automatikoki zuk aukeratutako orduan konektatu eta deskonektatuko da jarritako baldintzekin.

Domo House, marka berri bat da, etxeko domotika kontrolatzea da gaur egun eskaintzen duen zerbitzu bakarra.

Domotika, etxeko tresna elektrikoak, eta teknologiak aurrera egin ahala, aplikazioak eguneratze. desberdinak eskainiko dizkio bezeroei. Guztiz dohain noski.

Aplikazio bat izan da, ez du ingurunea kutxatzen.

Aplikazio honi esker etxeko Domotikarekin gaur egun dauden arazo larriak nabarmen murriztu nahi ditugu, eta baita ere gure bezeroei %100KO segurtasun bat eskaini etxetik kanpo daudenean, edo bere seme edo alabaren bat etxean dagoenean.